

Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

03



aisialde euskara



kultura

loramendi

Ibilbidearen mapa

Ibilbidearen mapa 16. orrialdean (Kontraportadan) aurkituko duzu, bidean errezago aurki dezazun.



01

Km82



Ibilbidearen hasiera



Plaza azpian kokatuta dagoen Km82 harritik emango diogu hasiera 3. ibilbideari: ARKARAZO — AREANTZA (Arientza) — GORONAETA (Korueta).

Durana kalean gora jarraitu, Mitarte kalean aurrera segi eta Araba Ibilbidean aurrera goazela, San Martin (zerrerixara) ingurura iristean ezkerretara hartu eta trenbidean aurrera jarraitu Arkarazo eta Mendiolako bidegurutzera iritsiko gara. Eskuinera gorantz hartuz gero, Kurtzebarri mendira igotzeko aukera dago. Baina guk errepide hori alde batera utzi eta bidegurutze horretan dagoen Potxotxuena etxeari erreparatuko diogu.

Potxotxo Areantzako Peruena baserrian jaio zen, ba uetxeako industrialia zen bera. Neguan elurra pilatzen zuen Areantzako elur zuloan (neberan) eta udan bainuetxean zegoen jendearentzako izozkiak eta freskagarriak egiten zituen. Elur asko egin eta jendea elurraz kokoteraino zegoenean, hala esaten zuen Potxotxok egon zateze ixilik, honeik die nire gari buruek eta!

02

Ba uetxe



Aipatutako etxearen parean beste etxe bat zegoen antzina, Galleguen etxea bezala ezagutua. Bertakoak laminazi otara etorri ei ziren lanera, Galiziatik etorritako lehenak omen ziren.

Bidegorri berritik egingo dugu aurrera, lantegi artetik eta arropak garbitzeko aspaldiko bogada, labadero edo pujetarri batekin egingo dugu topo.

Bidearen tarte honetan ezin utzi aipatu gabe Aretxabaletako Bainuetxeen istorioa, gaur egun desagertuta badaude ere, bere garaian ospe handia izan baitzuten. Gure ibilbidea Ibarako Bainuetxea zegoen lekutik pasatzen da, eta bertako aipamen batzuk egitea beharrezkoa irudit zaigu. Ibarako Bai uetxeak 1843. maiatzean ireki zituen bere atea. Bainuetxeak bi gorputz zituen: bata ostaua eta bestea bainu gunea. Biak galeria beiratu batek lotzen zituen.


Uraren eragin fisiologikoak odolaren zirkulazioa hobetu, jateko gogoa eta transpirazioa handitzen zutela esaten zen. Azaleko erupzio-afekzio kronikoak arrakasta handiz sendatzen zituzten; hala nola: ekzemak, erpeak, sarnak, psoriasis, sifilideak etab. Ur honek birika

eta bronkio katarroak, faringitisa eta laringitisa tratatzeko ere balio zuen.

Esan daiteke Bainuetxearen erabiltzaile gehienak Madrildarrak zirela, horregatik esaten zioten Aretxabaletari Madrid Chiquito eta Bainuetxea kokaturik zegoen auzoari Puerta del Sol .

Bainuetxea egoera onean bazegoen ere, ospea galtzen hasi zen. 1925ean irekita jarraitzen zuen, baina gainbehera nabaria zen. Behin-betiko 1936. urte inguruan itxi zen. Gaur egun iturri txiki bat besterik ez da geratzen, bertan usain sulfhidrikoa hartzen da eta sortzen duen geruza zuri berezia behatu daiteke.

Berriz ere bide nagusia gurutzatu eta Iturriondotik (Iturriondo Euskal Herriko zuhaitz ezberdinak landatuta dauden eremua da) pasatu eta gainean deposito zaharra dago. Lehen Atxabaltara urak handik ekartzen ziren.





Deposito zaharretik aurrera boli ako bidegurutzera iritsiko gara, errepidean aurrera jarraitu 50 metro inguru eta bidean eskumara hartuz lehengo autoeskolako bidetik, Jeronimuena baseritik eliza ondora iritsiko gara, Arkarazo auzunera. Arkarazon San Millan eliza dago eta ondoan abadetxea. San Millan Elizak eta abade-etxeak multzo arkitektoniko ederra osatzen dute. Azaroaren 12an ospatzen dira Arkarazon San Milixanak. Elizako aldare nagusia barroko estilokoa da eta egur ilunean dago landua.



Auzoan kokatzen da Palazio baserria ere (lehen dorre etxea zen), historia handikoa, bertako familiak Arkarazo abizena zuen (arkaratz = lugar de rosal silvestre); izan ere, armari bat dago bertan bertako seme Juan de Arcarasoren omenez, Ejerzitoen gobernadore eta generala izan zen berau Perun.

Begiaran baserria 110metrora dago eta Madura baserria (toki aberatsa esan nahi du) bota egin bazuten ere, leku beretsuan Madura berri (Berri edo berria) edo eraiki zuten.

Arkarazo auzunea bi zatitan banatzen da, bata behean eta bestea goi aldean. Berriz ere errepidea hartu eta 750m ingurura bihurgune batera iritsiko gara. Eskubira hartu eta Arkarazoko goialdeko auzunera iritsiko gara eta bertan Bikarixuena, Erderena, Aurrekoa, Juanetxokoa eta Teresena baserriak ikusiko ditugu.



04

Aretxabaleta eta Eskoriaztako Muga



Berriz ere bide berdinetik bueltatuz bihurgunera iritsiko gara eta, errepidetik gora eginez 50 metrotara Mendibitzu baserria ikusiko dugu (hau ere Arkarazo auzoa da). Gaur egun produktu ekologikoen produkzioan eta salmentan dihardute bertako baserritarak. Aurrera jarraituz hurrengo bidegurutzean ezkerretara egin eta Olabena baserrira iritsiko gara, Eskoriaztako lurretan dagoena, Mendiola auzoan. Aurrera jarraituz Arantza Zahar baserriarekin egingo dugu topo eta berriz ere Aretxabaletako lurretan sartuko gara.

05

Bolinaga



Aurrera jarraitzen badugu Bolinaga (Boli a) auzunetxora iritsiko gara, eta bertan Errota, Bolinagazpikoa eta Patxikuena baserriak ikusiko ditugu. Bolinaga auzune barrutik Areantza auzorako bidea hartu eta hurrengo txabolak Sardaneta izena du, izan ere, antzina bertan zegoen izen berdina zuen baserria. Bitxikeri bezala aipatu behar da, baserri hontako arbaso bat Leintzeko alkate izan zela.

06

Karobia



Sardaneta txabola pasatu eta eskuinera, gorantz hartuz gero, 500metro ingurura karobia aurkituko dugu (2. ibilbidean azaltzen dira karobien ezaugarriak). Lehen leku honetan hiru edo lau karobi zeuden, eta bitxia bada ere, toki honen aldameneko zelaia Tellerixa da, baliteke bere garaian karobia teilak egiteko erabiltzea.

Karobira igoko gara eta berriz ere bide berdinerara jaitsiko gara. Aurrera jarraituz Areantza auzunera iritsiko gara, Mitarte-Garai baserrira (gaur egun Aretxabaletan dagoen nekazalturismo bakarra). Mitarteandikoa, Miarteazpikoa, Azpikoa izango dira inguru honetan bistan izango ditugu baserriak.





Aurrera jarraitu eta ezkerretara hilerria eta San Bizente ermita elkarrekin ikusiko ditugu, eta hemen ere gauza bitxia ikus dezakegu. San Bizente ermitara sartzeko, beharrezkoa da hilerritik pasatzea. Areantzako lehenengo eliza zela ere esaten da, txiki geratu zenean auzokoez bozketa egin zuten eta handitu beharrean berria eraikitzea erabaki zuten (Natibitate eliza). Ermita eraiki zen lehenengo, eta hilerria beranduago, 1895.urtean . San Bizente hotza, neguan bihotza . Areantzako lehenengo eliza dela ere esaten da.



Antzina auzokoez miresmen handiaz zioten San Bizenteko martiriari eta urtarilaren 22an ez zuten egun handia ospatzeko aukera galtzen.

Eskubira begiratuz gero Ardantza baserria ikusiko dugu eta honek ere bere armaria du. Aurrerago Etxebarri baserria aurkitu dugu. Etxebarri baserria behi esne produkzioan lanean diharduen herriko baserri bakarra da.





Errepidetik aurrera egingo dugu eliza ondora iritsi arte. Areantzako Natibitate Elizari itsatsirik apaiztxea dago, baserri-ermita honetan Erdi Aroko aztarnak ikus daitezke. Eliza nagusiak beranduko erromaniko atari txiki eta arrunta dauka eta bere aurre alde zorrotzarekin ohore egiten dio Amabirjina Mariari, kasu honetan Natibitate tituluarekin. Agorreko andramaixa ospatzen da irailaren 8an. Eliza inguruan dauden baserriak Joxejuaki ena, Peruena eta Txikinekua dira.

Areantza auzoan bada beste bitxikeria bat ere, kanpai jotzaile eskolarena. Kanpai hotsa, pasatzen zenaren berri emateko modua izan da urtetan zehar. Tradizioak dio egoera bakoitzerako kanpaiak modu ezberdinean jotzen direla, baina usadio hau galtzen joan da eta eskola honek berriro ere auzoan indarra hartu du, kanpai jotzaile eskola osatzeraino. Gai honen inguruan lan ederra egin dute auzotarrek: partiturak eta istorioak idatzi, grabazio ezberdinak egin bitxia bezain interesgarria benetan.

Berriz ere etorritako bide berdinetik atzera egingo dugu. Anduagatarren baserri parean (etxe berria), ezkerretara hartuko dugu aldapan gora eta Intxaurbe baserrira iritsiko gara. Bitxikeri galanta Intxaurbe baserriarena, urtean hilabete oso bat eguzki gabe egoten baita, a ubeian.

Errege egunien Intxaurbeko katue tellature igoten da eguzkixe hartzen. Areantza aldean bada beste esaera bat Erregetan eguzkixe Intxaurben, San Bizentetan Irixemendin eta Santa Agedan Kabarrizan Hala argizatzen ei du eguzkiak.



Elur-Zuloa

Intxaurbetik gora uretza dago, oso uretz ona gainera. Gorantz jarraituz elur-zuloa edo neberia ikusiko dugu. Elur zuloa lurrean egindako zulo handi bat da, inguruan pareta sendoak dituena. Erromatarren garaitik ezagunak dira elur—zuloak baina garapena XVI-XIX mendeetan izan zuen eta XX.menderaino erabili izan da. Elur-zuloetako langileak udaberriko azken elurrekin hasten ziren lanean, elurra palekin zatitu eta zulora eramaten zuten, gero gainean iria eta garoa jartzen zen eta berriz ere elurra, horrela zulo guztia bete arte. Gaez egiten zuren lan, eguneko berotasunak izotza ez urteko. Bi funtzio zituzten elur zuloek; batetik, janariak mantentzeko erabiltzen zen eta bestetik, freskagarriak eta izozkiak egiteko.

Areantzako elur-zulo hau ez dakigu zein urtetakoa den, baina lehen aipatu bezala freskagarri bezela erabiltzen zen.



Elur-zulotik aurrera Aretxu izeneko baserria dago, harritzekoa bada ere, bertatik doan zordanbidea baserriaren erdi-erditik pasatzen da. Kondairak dio Ojala Zelaiko jauntxoaren neskamea haurdun geratu zela eta Aretxun etxea egin ziotela, eta bertara bidali zutela.


Kabarrixa

Edur-zuloaren ondoan Kabarrixa izeneko baserria zegoen. Hango harriekin egin zen Areantzako bidea, gaur egun aztarna batzuk ikus daitezke bide bazterrean. Martin Kabarrixa (Martin Zaldúa) izan zen bertan bizi izan zen azken biztanlea. Lapur ospea zuen baina lapur onarena, beharrak hala behartuta. Errenteroa zen eta Bizkaia aldera alde egin zuela jakin zen, etxetik alde egin zuenean enbor bat utzi zuen sutan etxe barruan, ingurukoek etxean zegoela pentsa zezaten. Gaur egun Areantzako jaietan Martin Kabarrixaren jeitsiera ospatzen dute.





Areantzatik Kurtzebarri mendira (1146m) hamaika herritar igotzen da, eta Arientzako auzotarrak irailaren hasiera Kurtzebarriko egunean ere halaxe eginten dute. Bidean haitz asko ikusi eta pasatzen dira eta oso jende gutxi badaki ere, Areantzatik Kurtzebarri dauden haitz guztiek dute izena: Atxurtxueta, Hantzentaneta, Hatz potolo, Obispo hatxa, Fraile monjen hatxa, Laukadie... Hauek guztiak eta gehiago ditu jasoak Julen Abasolok egina duen bilketan. Izan ere, Julen Abasolok Arientzaren inguruko kontu eta istorio asko ditu jasoak.



Aretxutik Goronaetako (Korueta) bidea hartu eta urtegiko iturira (Arientzako kurtzara) irtengo dugu. Aurrera jarraitu eta Santiago elizara iritsiko gara. Bertako eliza neoklasikoaren zaindaria Santiago da. 1556 urtekoak dira eraikin honi buruzko lehenengo aipamenak. Bestalde, bertako elizaren erretaula nagusia ikusgarria da bere izaera koloretsu eta biziarengatik, eta bertan Santiago Apostoluaren bizitzaren pasadizoak azaltzen dira. XIX.mendea ponte berria eraiki zen eta baita elizpea eta kanposantua ere. Santixau jaiak ospatzen dira Goronaetan, Santiagoren omenez, uztailaren 25ean.



Korueta auzoko zaindaria Santiago bada ere eliza alboko aldabean Santa Inesen irudi eder bat mantentzen da. Amets gaiztorik ez izateko lehen Santa Inesi erregutzen zitzaion. Seguruenik Santa Inesen irudia bere egunean Korueta inguruan egon zen ermita batetik ekarritakoa izango da; konkretuki, Urretxa baserria zegoen azpiko zelai batean kokatzen omen zen ermitatik.

Jada desagertuta dagoen beste ermita bat ere bazegoen Koruetan, San Jorge ermita hain zuzen ere. Kurtzebarriko hegalean kokatzen zen berau.



Goronaeta auzoa honako baserri hauek osatzen dute: Gure Kabia, Errekabitate, Isasmendi, Uriate (Uxarte), Mendikurtza, Mendieta. Maistrunea, Abade etxea eta Arane.

Goronaetan bizi zen aurrerago aipatu dugun Martin Kabarraxaren arreba, Legazpiarrak baziren ere arrazoi ezberdinengatik biak ona etorri ziren. Hauek ere errenteroak ziren. Arrebak alaba bakarra zuen eta Goronaetan, arraroa bada ere 35 pertsona hil ziren urte berean, alaba ere urte horretan hil zen. Gero auzotik alde egin zuten.

Korueta oso auzo zabala da, urtegiaren inguruko bidea jarraituz, Markietegi eta Diegoena (Dixaun) baserriak ikusiko ditugu. Ugaztegiari o (Ugastei) ere zabaltzen da auzoa eta bertan Goiko Etxia (Gipuzkoako baserririk altuena da), Erdiko Etxia, Ataunena eta Beheko Etxia baserriak daude. Koruetatik Ugastegi bidean Arbe baserria ikusiko dugu.

Urrejola Garai (Urrexola-Garai) auzunetxea eta Korueta barnean sartzen da eta bertan hiru baserri daude: Manuelena, Damielena eta Beheko-Etxe.





Goronaetatik Urkuluko urtegira irtengo dugu eta bertatik berriz ere Areantza aldera hartu. Ibilbide honetan ezin dugu aipatu gabe utzi, Urkuluko urtegia eraiki zenean, bertan desagertu ziren beserriak, izan ere mordoxkatxo bat ziren. 1975ean hasi ziren urtegiko lanak eta 1979.urtean bukatu ziren. Goronaeta auzoko baserriak hauek dira: Urkulu, Uzar-txiki, Uzar-Handi, Barrutei, Ziondo-Goikoa, Ziondo-behekoa, Disatx, Errota Zahar, Ubao eta Mendikurtza.

Aozaratza (Azatza) auzokoak berriak: Zelaikua, Sarbiarte, Okinekua, Aldaixena eta A abarta.





Bidegurutzera heltzean bidegorritik behera hartuko dugu, Iraeban baserriaren ondotik, berriz ere Potxotxuena izeneko etxera iritsi arte. Copreci lantegi atzetik eta trenbide zaharretik gero, Iturrigorri frontoi ondora iritsiko gara eta plazatik behera berriro eta 82 kilometrora iritsiko gara.

Bibliografia:

- ¥ <http://www.euskonews.com/0544zbk/gaia54404eu.html> (Aretxabaletako bainuetxeak)
- ¥ Aretxabaletako Bai u-Etxeak: Aretxabaletako udala: Jose M Urkia
- ¥ Santiago eliza: Korueta: Aitor Antxia Leturia: Aretxabaletako udala eta Parrokia.
- ¥ Valle de Leniz. Arechavaleta y Escoriaza (primera y segunda parte): Jose Letona Arrieta y Juan Leibar Guridi.

Argazkixak:

- ¥ Neberia
- ¥ San Bizente elixia / kanposantua
- ¥ Palazzo
- ¥ Ardantza
- ¥ Urkuluko argazki zaharra
- ¥ Ba uetxia
- ¥ Labaderua
- ¥ Kurtzebarri
- ¥ Arkarazo: San Millan eliza eta abadetxea.

Eskerrak:

- ¥ Julen Abasolo
- ¥ Lanbide eskola
- ¥ Juan Jesus Anduaga




Ibilbidearen mapa

Zenbakiez agertzen diren tokien deskribapena barruan aurkituko duzu.

01 82. km 

02 Bainuetxe


Aretxabaleta



03 Arkarazo

04 Muga





Larrino

Urkuluko
urtegia

Aozaratza

Korueta

Areantza

Bolinaga

Mendiola

San Bizente ermita

karobia

Bolinaga

korueta

Urkulu

Areantzako eliza

Kabarrixa

Elurzuloa

Kurtzebarri 1.146 m



Kurtzebarri

12

13

08

10

09

11

07

08

05



Aretxabaletako

Ibilbide historikoa

ladox diseinua



Aretxabaletako
Udala



loramendi

Durana 11 (Udaletxe Zaharra)
20550 /E/Aretxabaleta/E/Gipuzkoa
Tel.: 943 77 09 70 / 685 75 67 29
loramendielkartea@gmail.com